

BEZEROEKIKO HARREMANA

Bertan, harremanetarako datuak eskuragarri izango dituzu, hala nola  **airezkokabina@gmail.com** eta gure **telefonoa, 944 123 456**. Web orrian, Airezko Kabina nola erabiltzen den eta bere ezaugarriak azaltzeko aukera izango duzu, baita kabina aktibatzeko sistema eta pausoak argi eta garbi azaltzen diren informazioa ere.

Web orrian, **bezeroarentzako arreta atala** ere badago. Atal honetan, galdera ohikoenei erantzuten zaie eta kabinaren funtzionamendua pausoz pauso azaltzen duten bideoak edo tutorial laburrak aurki ditzakezu. Gainera, **fabrikazio-akatsik edo arazo teknikoak sortzen badira**, bezeroek web orritik zuzenean kontaktatu ahal izango dute.

Bestalde, web orrian aholku eta gomendio praktikoen atal bat ere izango da: hondartzako bisitak antolatzeak aholkuak, materiala nola zaindu, eta kabinaren erabilera ahalik eta eraginkorrena izateko orientabideak.

Gure bezeroentzat, **mugikorrean instalatu daitekeen Airezko Kabina App-a** ere eskainiko dugu. Aplikazioak **hondartza ezberdinetan instalatutako kabinen kokapena erakutsiko du** eta erabilgarritasun egoera denbora errealean.

Pixkanaka, Airezko Kabinaren funtzionamendua hobetzen joango gara: **urteko inkesta bat bidaliko diegu bezeroei zerbitzua hobetzeko**, eta aplikazioaren bidez kabinaren erabilera datuak eta optimizazio gomendioak erakutsiko dizkiegu.

Korreo elektronikoaren bidez, bezeroari zerbitzuaren berrikuntzak jakinaraziko dizkiogu:

- **Kabinen kokaleku berriak**
- **Zerbitzuaren eguneraketak**
- Behin-behineko mantentze lanak
- Udako beherapenak edo abonu-eskaintzak